

Gorka Moreno Márquez

SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Pentsioen krisia dela eta ez dela

Sistema kapitalistan ohikoak diren krisi garai hauetan beti agertzen zaigu pentsioen inguruko eztabaida, azken aldian hainbat komunikabidetan ikusi ahal izan dugun bezala. Hazkunde ekonomiko garaian bitxia bezain esanguratsua izaten da krisia oso azkar ahaztea, pentsioen auzia desagertzea eta inork ez hitz egitea honen inguruan.

1990. hamarkadan ere gaur egun ematen ari diren hainbat argudio agertu ziren pentsioen inguruko eztabaidan. Batzuek 2020. urtean sistemak porrot egingo zuela aurreikusi zuten jada. Oraingo honetan ere, ez dira gutxi porrot hau aurreikusten ari direnak eta susmoa dut, petrolioaren desagerpena bezala, azkenean ez ote den beti eztanda atzeratzen.

Lehenik eta behin, esan beharra dago epe motz-ertainera begira Gizarte Segurantzaren etorkizuna bermaturik dagoela. Are gehiago, gaur egun –eta azken urte hauetan ere– superabita ematen da Gizarte Segurantzaren kutxan. Bigarrenik, eta aurreko pasartean esandakoaren aurrean, nabaria da azken urte hauekiko tendentzia demografikoak zeintzuk diren eta populazioaren zahartze prozesua agerian dugula, eta argi eduki behar dugula etorkinen etorrerak ez duela



INIGO AZKONA

egoera hau konponduko. Gainera, ez dezagun ahaztu gaurko etorkin kotizatzaileak pentsioen onuradunak izango direla. Beraz, bi tendentzia dauzkagu. Alde batetik, egoera koiunturala daukagu: krisia dela eta kotizatzaile gutxiago eta desneplegu prestazio gehiago ordaindu beharra. Bestetik, nabaria da epe luzera begira Gizarte Segurantzaren inguruko gogoeta egin beharko dela egiturazko arazoa den demografiari aurre egin ahal izateko.

Bigarren eztabaida hau da interesgarriena eta landu beharrekoa, denbora dagoenez gainera sosegu dezentez egin daitekeela uste dut. Zentzu honetan, orain arte sakratutzat eta tabutzat jo diren hainbat elementu birplanteatu beharko ditugula iruditzen zait. Bat aipatzearen, erretiroak 65 urterekin izaten jarraitu behar al du? Akaso interesgarriagoa izan daiteke 65rekin baino 67rekin erretiratzea eta bi urteko denbora-txekea izatea lan ibilbidean nire formakuntza hobetzeko edota nire seme-alaben zaintzaz arduratzeko? Era berean, 65 urte izateak gauza bera esan nahi al du gure garaian edo Bismarck-en garaian? Galdera hauen inguruan hausnartzea ezinbestekoa iruditzen zait. Lehenengo harria botata dago. ■

« Akaso interesgarriagoa izan daiteke 65rekin baino 67rekin erretiratzea eta bi urteko denbora-txekea izatea lan ibilbidean nire formakuntza hobetzeko edota nire seme-alaben zaintzaz arduratzeko? »



TXANDAN

Juan Ramon Makuso

Gauzen neurria



Gure nera-bezaroan, eskoletan eta egun ere, entzuten genituen –ikastea norberaren baitan uzten dut– sofista baten hitzak, Protagonasenak: “Gizakia gauza guztien neurria da”. Eta egun hauetan, gehiago esango dut, azken bola da honetan, makulu dira hitz horiek nire egunerokoan. Egutero, goizarekin bat, begiak ireki orduko, edozein gertaerak, Protagonas zaharra nirekin dut solasean. Zizel bat da. Eta kolpe bakoitza irri bat ene ezpainetan. Hiri bat, eta bere hiritarrek beraien bizitzak piztu eta itzali egiten dituzte, futbol partida bat ikusteko, umetako pan-

pinen modura, guk “*cuerda*” ematen genionaren arabera.

Lehendakariak poesia irakurtzen du bere agintea zinpetzerakoan; ea poesia berpizten den! Foru Aldundiko nagusi ohi batek bazkarietan xahutzen ditu gure diru pixarrak. Valentzia Erkidegoko presidentea, epailearen aurrera egia esatera doa –nonbait bestelakoetan ez da horrela gertatzen– hainbat hiritarren txalo zaparrada artean. ETA, *Argi* eta *Gaukoren* –ongi aukeratutako ezizenak– hitzekin dator. Ea hitzak gardentasunez gailentzen diren! ARGIAkoek badakite zenbat kostatu zaidan oraingo Txandari neurria hartzea. ■